44. *Eu* + *a* . . . Iñon ez; *nuen*, *nuin*, *niin*, *etc.*; neuen ez da emengo.

45. *Eu* + *e* . . . Ezta ere *Zuek* geienak; zuik (Sara) *zubek* (D. Lohitz).

46. *Argina*, *burdina*. Bat ez beste eŕietan.

argiña, burdiña. (D. Lohitz).

47. *U + e. Eskuetan* 6 eŕitan.
eskubetan . . 1 » (Sara).
eskuyetan . . 1 » (Itsas).

48. *Ai + a.*
Ibaia . . . . 1 » (Zugaŕ).
ibaya . . . . 1 » (ainho??).
Eŕaiak . . . 1 » (Zugar).
Eŕainak . . . Gañerakoak.

49. *Ai + n.*
Gainera (t) . . 5 eŕitan (Urd, Zug, Its. Arang, Ainh).
gaiñera . . . 1 » (Sara).
gañera . . . 2 » (Uŕuñ, D. Lohitz).

50. *Ei + a-*
Beia . . . . 4 eŕitan (Uŕuñ, D. Lohitz, Zug, Urd).
behia . . . . 3 » (Ainho, Itsas, Arang).
Eio . . . . Iñon ez.
eho . . . . 4 eŕitan (Ainh, Sara, Arang, Itsas).
ego (tu) . . . 3 » (D. Lohitz, Zugaŕ).
eo . . . . . 1 » (Zug).
ejo. . . . . 1 » (Zug).

51. *Oi + a.*
Idoia . . . . Iñon ez.
uztokia . . . 2 eŕitan (Uŕuñ, Sara).

52. *O + i.*
Oinez. . . . 5 eŕitan,
oñez . . . . 3 » (Sara, uŕuñ, D. Lohi).

II. ITZEN ERABIDEAZ

1. A) *Nitaz* . . . . Eŕi guzietan.
B) *Huntaz*, untaz . Eŕi guzietan. D. Lohitzu-en *hortaz*.
Z) *Hortaz* . . . Eŕi guzietan.
D) *Hartaz*, artaz . 6 eŕitan.
etaz . . . . 1 (ainh).
F) *Gizonaz* . . . Eŕi guzietan.
gizonez . . . Arangoitz-en.
2. *Gaztetxo* . . . 2 eŕitan (Zugaŕ, Arang).
gazteto . . . 1 » (Urdaz).
3. *Mandō* . . . Bat ez beste eŕi guzietan. D. Lohi-

tzun-en ez.

motx . . . . 2 eŕitan (Ain, Sara).
andī . . . . 1 » (Sara).
ñabar . . . . 2 » (Sara, Zugaŕ).
oŕatx . . . . 1 » (Sara).
xali . . . . 1 » (Sara).
andēre . . . 3 » (Sara, Ainh, Itsasu).

4. A) *Anditzai etxetzar.* ¿Sara-n? Beste eŕietan ez.
2. *Aunditzar* . . . Urdazubi-n.
D) *Tzeŕi* . . . . Saran.
Tzakur . . . Saran.
5. *Bidali* . . . . 2 eŕitan (Zugar, Urdaz). Besteetan igoŕi.
estali . . . . Eŕi guzietan.
6. *Gaurdanik* . . 4 eŕitan (Sara, Itsasu, zug, Urd). Besteetan *egundik*.
lendanik . . . 2 » (Urd, Zugaŕ).
noizdanik . . 4 » (Sara, Itsasu, Zug, Urd).
oraidanik . . 4 » (Sara, Arang, Urdaz, Ainh).
ordudanik . . 3 » (Sara, Arang, Zugaŕ),
betidanik. . . 6 » (Sara, Arang, Itsas, Urdaz Zugaŕ, Ainh).
tipidanik. . . 1 » (Itsasu).
aitzinatik, (etik). Eŕi guz.
aspaldidanik . 5 eŕitan (Ainh, Arang, Itsas, Zug, Urdaz).
bardanik . . . 1 » (Urdaz).
7. *Oraiganik* . . 1 » (Arang).
biarganik . . 1 » »
lehenganik . . 1 » »
8. *Uŕundanik* . . 3 » (Itsasu, Arang, Ainh).
uŕunganik . . 1 » (Arang).
9. A) *Gauŕarte, egunarte* . Eŕi guzietan.
oraiarte . . . . Eŕi guzietan.
egunarte (artio) . 6 eŕitan.
egundaino . . 2 » (Itsasu, Urdaz).
betidaino. . . 1 » (Zugaŕ).
betidano . . . 1 » (Sara).

Betikotz gañerakoak.

B) *Oino* . . . . 4 eŕitan (Ainh, Zugaŕ, Urdaz, Arang).

oño . . . . 1 » (D. Lohitz).
oraino . . . 2 » (Sara, Itsasu).
oraiño . . . 1 » (Uŕuña).

10. Emen O.
11. *Etzanghei* . . Saran.
12. *Tar* n *ta* l-*ren uŕena.*
Agixko -*dar*, ez-*tar*. *Baztandar, Marildar, Azkaindar*, Alaere *Larzabaltar* (Ainh, Aragoitz).
13. O.
14. Uŕengo *egunean.* 2 eŕitan (Urd, Zugaŕ).
egunian. 2 » (Uŕuñ, D. Lohitz).
Gañerakoetan *bihamunian.* Bertze *egunean* (Itsasu).
Egunekoa = lo del día; egungoa = lo de hoy; egunetik = desde el día; egundik = desde hoy.
15. A) Emen *mahain, mahin*, ez *mai.* Mahinetik, mahinəra, mainekoa, etc.
B) *Besta*, ez *yai.*
Z) O.
16. A) *Gauetik* . . . 3 eŕitan (Urd, Zugaŕ, Itsasu).
gautik. . . . 1 » (Arangoitz).
gauean . . . 3 » (Lengoetan).
gauan. . . . 2 » (Sara, Arang).
gauekoa . . . 2 » (Urd, Zugaŕ).
gauera . . . 3 » (Lengoetan),
gauerako. . . 2 » (Urd, Zug).
gauerarte. . . 2 » »
gaurarte . . . 1 » (Uŕuña).
gabarte . . . 1 » (D. Lohitz).
B) O.
17. A) *Amaena* . . . 2 eŕitan (Sara, Uŕuñ).
amaina . . 5 « (Urd, Zug, Itsas, Ainh, D. Lohitz).
amâna . . . 1 » (Arang).
B) *Senaŕaena* . . 2 » (Sara, Uŕuña).
senaŕaina . . 3 » (Urd, Zug, Itsasu).
senaŕena. . . 1 » (D. Lohitz).
senaŕana . . . 1 » (Aran).
18. A) *Amaentzat* . . 2 » (Lengoetan).
amaintzat . . 4 » »

amentzat. . . 1 » (D. Lohitz).
amantzat. . . 1 » (Arang).

B) *Senaŕaentzat* . Lengoetan.
senaŕaintzat . . »
senaŕentzat . . »
senaŕantzat . . »

19. *Irungoa, Irundik, emengoa, emendik.*

20. *Madrilgo, Madrildik, Larzabalgo,* (Larzabalako, Arangoitz). *Usurbilgo, Usurbildik.*
L-ren uŕena *g;* n-ren uŕena *g.*

21. A) B) Ez da garbi ageri: Eibargo, Eibardik (Urdaz); E-)barko, Eibartik (Zugaŕ).

22. A) *Miraralleskо, -tik* (Zugaŕ); *Mirarallesgo, -dik* (Urdaz). Au ere ez da ageri.

B) *Etxaŕi-Aranazko, -tik, Ustaizko, -tik, Beskoizko -tik.*

Z) *Lurdesko, -tik* (Urd, Zugar) Besteetan *Lurdeko, -tik.*

23. A) *Mendi batean* . 4 eŕitan (Ainh, Itsas, Zugaŕ, Urdaz).
mendi batian . 4 »

B) *Egun batez* . . 7 »

24. *Mendi alderat* . 6 » (Urd, Zugaŕ, Uŕun, D. Lohitz, Sara, Arang).
mendiari buruz. 1 » (Ainh).
mendira . . . 1 » (Itsas).

25. *Nerekin* . . . 4 » (Sara, D. Lohitz, Zug, Urid Nêkin D. Lohitzun-en.
enekin . . . 5 » (Ainh, Sar, Arang, Itsas, Urdaz).

26. *Gizoneri* . . . 4 » (Urdaz, Uŕuñ, D. Lohitz, Ainh).
gizoner . . . 1 » (Itsasu).
gizonei . . . 6 » (Zugar, Urd, Ainh, Uŕuñ, Sara, Arang).

27. *Galtzer* . . . 4 » (Sara, Itsas, Zugar, Urd).
Galtzezeko iŕiskuan, aŕiskuan, etc., gañerakoak.

28. Eldu den *ilabaterako*. 3 eŕitan (Zug, Itsasu, Urdaz).
» *ilabetiko*. . 1 » (Sara).
» *ilaiterako* . 2 » (Ainh, Sara).
» *ileteko* . . 1 » (Uŕuña).
» *llatarte* . . 1 » (Arang).
» *ilēteko* . . 1 » (D. Lohitz).

29. A) *Eztulka* . . . . . Eŕi guzietan.
B) *Isilka* (x) . . . . . Eŕi guzietan.
30. *O*.
31. *L* + *ki* . Beti *k*-rekin, oialki. Alare onegoki *estalgi*-az galdegitea, Bidasoaz aratako idazkietan ageri baita.
32. *N* + *ki* . Orobat *aŕaínki*, *bigunki*.
33. A) *Non* . . . . 4 eŕitan (Sara, ainh, Urd, Zugaŕ).
nun . . . . 4 »
B) *nondik* . . . 3 » (Ainh, Zugaŕ, Urd).
nundik . . . 5 »
34. *Noiz* . . . . Eŕi guzietan.
35. *Nola* . . . . Eŕi guzietan.
36. *nolako* . . . Eŕi guzietan.
37. *Zenbat* . . . 6 eŕitan.
zonbat . . . 2 » (Itsasu, Arang).
38. A) *Nor* . . . . Eŕi guzietan.
B) *Nor* . . . . Eŕi guzietan.
Z) *Nork* . . . . 5 eŕitan (Sara, Uŕuñ, Arang, Urd, Zugaŕ).
nok . . . . 3 »
39. A) *Zer* . . . . Eŕi guzietan.
ze . . . . . 7 eŕitan (Zug, Sara).
B) *Zer* . . . . 7 » Zein gauza (Arang).
40. A) *Zein* . . . . 5 » (Urd, Zug, Sara, Uŕuñ, D. Lohi).
zoin . . . . 5 » (Uŕuñ, Ainh, Sara, Arang, Itsasu).
B) Bakoitzarentzako bezala.
Zein, *zoin* gizon il dire. Oro.
41. A) *Neoni*, nehoni . 4 (Sara, Arang, Zugaŕ, Ainh),
neone . . . . 2 (Urd, Zug).
nihaur . . . 1 (Itsasu).
neoŕe . . . . 1 (D. Lohitz).
neoŕi . . . . 1 (Uŕuñ).
B) *Eoni* . . . . 1 (Ainh).
hioni . . . . 1 (Arang).
ioŕi . . . . 1 (Uŕung).
ioŕe . . . . 1 (D. Lohitz).
hehoŕi. . . . 1 (Sara).

ihaur . . . . 1 (Itsasu).
ieune . . . . 1 (Zugaŕ).
eone . . . . 1 (Urdaz).
Z) *Bera* . . . . Eŕi guzietan.
D) *Geone(k)*. . . 2 eŕitan (Urd, Zugaŕ).
geroni. . . . 2 » (Sara, Ainh).
gueni . . . . 1 » (Arang).
guoni . . . . 1 » (Arang).
geoŕi . . . . 1 » (Uŕuñ).
guhonik . . . 1 » (Itsasu).
E) *Zeune*. . . . 2 » (Urd, Zugaŕ).
zeonek . . . 1 » (Ainh).
zeroni. . . . 1 » (Sara).
zueni . . . . 1 » (Arang).
zuhoni . . . 1 » (Itsasu).
zuoŕe. . . 1 » (D. Lohitz).
zeoŕi . . . . 1 » (Uŕuñ).
F) *Zeronek* . . . 2 » (Urd, Zugaŕ).
zerok . . . . 2 » (Sara, Ainh).
zuek . . . . 2 » (Uŕuñ, Sara).
zuik berak . . 1 » (Arang).
zihonik . . . 1 » (Itsasu).
berâk . . . . 4 » (Uŕuñ, D.Lohitz, Sara, Arang) *hoik*, *berak* (Arang).
berak . . . . 2 » (Urd, Zug); eurek berak (Zugaŕ),
berek . . . . 2 » (Ainh, Itsas).
42. A) Edan *dute* . . Eŕi guzietan.
B) » *du* . . . » »
Z) » *duena* . . 6 eŕitan.
» *duina* . . 1 » (Itsasu).
» *diina* . . 1 » (Arang).
» *dina* . . 1 » (Itsasu),
D) » *duela* . . 6 »
» *duila* . . 1 » (Itsasu).
» *diila* . . 1 » (Arang).
43. Egiten *nion* . . 7 »
» *nioen*. . 1 » (Uŕuñ).
» *nakon* . 1 » (Itsasu).
44. Il *nazazu*. . . 1 » (Urd, Zugaŕ).

» *nezazu* . . . 2 » (Arang, Sara).
» *nauzu* . . . 1 » (Ainh).
» *nazu* . . . 2 » (Uŕuñ, D. Lohitz).

45. *Daukat* . . . 3 3 (Itsasu, Urd, Zugaŕ).

Gañerakoetan *dut*.

46. A) *Badaki* . . . 6 eŕitan.
baaki . . . . 4 » (Itsasu, Arang, D. Lohitz. Ainh).

B) *Banakien*. . . 5 (Zugaŕ, Urd. Ainh, Sara, Arang)
banakiin . . . 1 » (Itsasu).
banekien. . . 1 » (Urd).
banakiyen . . 1 » (D. Lohitz).

Z) *Balaki*. . . . 8 »
baleki. . . . 1 » (Urdaz).

D) *Bana(r)amate* . 5 » (Urd, Zug, Ainh, Sara, Itsasu)

Besteetan, *eramaten naute*.

47. A) *Ez + d.*
Ezdaki . . . 1 eŕitan (Uruña).
eztaki. . . . Ganerako eŕietan.

B) *Ezbalaki*. . . 5 eŕitan (Urdaz, Itsas, Sara, Ainh' D. Lohitz).
espalaki (leki) . 2 » (Itsasu, Zugaŕ).

2. *Ez + g.*
Ezgara (gare, gia, etc.). Eŕi guzietan.
ezkara. Iñon ez.

D) *Ez + l.*
Ezluke . . . 3 eŕitan (Itsas, Arang, Ainh).
eluke . . . . 4 » (Zugaŕ, Uŕuñ, Sara, Itsas).

E) *Ez naiz* ongi, ungi, ontsa. 5 eŕitan.
eniz, enaiz . . 3 eŕitan (D. Lohitz, Arang, Itsasu).

F) *Etzen il* . . . Eŕi guzietan.

G, H, I, J, K . . . . ez emen.

48. Edan *nuen* . . 6 eŕitan.
nuin . . 1 » (Itsasu).
niin . . 1 » (Arang).

49. Il zaitz, (tzait) . Eŕi guzietan.

50. *Bizkaiarako*.

51. *Ekartzen balio* . 4 eŕitan (Ainh, Sara, Arangoitz, D. Lohitzunen, *balioke)*.
ekartzen badio . 2 » (Itsasu, Zugaŕ).

52. *Elkar ikusiko dugu* . 6 eſitan (Urd, Zug, Sara, Itsas, Ainh, D. Lohi).
Egun ikusiko dugu . 1 » (Arang).

53. A) *Egin dut* . . . Eſi guzietan)

B) *Egin dudala*. . 4 eſitan (Uruñ, Ainh, Urd, Zugaſ).
egin dutala . . 3 » (Sara, D. Lohi, Itsasu).
egin duala . . 1 » (Arang).

54. *Edan izan banu*. 6 » (Urd, Zug, Ainh. Sara, Arang, Itsas),

55. *Eman* . . . . Eſi guzietan.
ematen . . . 2 eſitan (Urd, Zug, *emaiten* ere).
emaiten . . . 3 » (Urd, Zug, Itsasu).

Beste eſietan ez da ageri.

56. *Hiltzale* (il) . . 4 eſitan (Zug. Its, Ainh, Uſuñ).
Hiltzaile (il) . . 3 » (Urd, Arang, Ainh, Uſuñ).
Hiltaile . . . 1 » (Sara).
hiltzaile . . . 1 » (D. Lohitz).

57. A) *Hiltzen* (iltzen) . Eſi guzietan.

B) *Eskaini* . . . 7 eſitan.
eskañi . . . 1 » (D. Lohitz).
eskaintzen . . 1 » (Itsasu) (1).
eskeintzen . . 2 » (Urd, Zugaſ).

58. A) *Daguen bat* . . 1 eſitan (Urd).
dagon bat . . 1 » (Zugaſ).

Gañerako eſietan *dena*

B) *Dagola* . . . 2 eſitan (Sara, Zugaſ).

Beste eſietan ez da ageri: ¿bego ote da?

Z) *Edaten dut* . . Eſi guzietan.
edateut . . . Eſi guzietan.

60. A) Surat (ra) erori . 6 eſitan.

Uſuñan eta Ainhoan ez da zantzurik.

B) Mezarat (ra) . . Eſi guzietan.

61. *Noratnahi. noranai.* Eſi guzietan.

62. A) *Egon bear dut* (behar). 7 eſitan.
egon bear naiz . . . 1 » (Arang).

B) egon nahi, nai dut . . Eſi guzietan.

E) Etoſi uste dut, (ez *naiz);* etoſi gogo dut (ez *naiz).*

---

(1) Gañerako eſietan ez da deus ageri, baño *eskaintzen* bide da.

63. *Hauk, auk* . . Efi guzietan.
hauiek . . . 1 efitan.
64. *Hoik*, oik. . . Efi guzietan.
65. *Hek*, ek . . . Bat ez beste efietan.
Arek . . . . 1 efitan (Ufuña).
66. Bizkaiarako.
67. *Egin behara*. . 8 efitan.
e(g)itekua . . 1 » (Ainh).
Eginkizuna iñor ez.
68. *Badaukat*. . . 4 efitan (Sara, Itsas, Zug, Urd).
Besteetan badut, baut.
69. *Bazaukan* . . 1 efitan (Urd).
bazabilan . . 6 »
bazebilan . . 1 » (Ufuñ).

III. ITZ BATZUEN ERABILKERA

1. *Eskuara* . . . Bat ez beste efietan.
eskara . . . D. Lobitzun-en.
2. *Eskualheri* . . 7 efitan.
euskaleri . . 1 » (Sara?)
eskaleri . . . 1 » (D. Lohitz).
3. *a(d)iskide* . . 1 » (Arang).
a(d)ixkide . . Gañerako efietan.
4. *Zazpi* . . . . Efi guzietan.
5. *Guzi* . . . . » »
6. *Gazte* . . . . 7 efitan.
gaste . . . . 1 » (Ainh?)
7. *Asteazkena* . . 7 »
astazkena . . 1 » (Arang).
8. *Aberats* . . . 5 » (Urd, Zug, Itsas).
Gañerakoetan *aberatx*
9. *Bizartsu* . . . 6 efitan.
bizardun . . . 1 » (D. Lohitz).
10. *Esne* . . . . 5 » (Urd, Zug, Itsas, Arang, Ain).
ezne . . . . 2 » (Ufuñ, Sara).
11. *Ortzegun*. . . Efi guzietan.
12. *Eriaroaren* . . 7 an. Efi guzietan.
13. *Elea itza* dirudi efi guzietan; ez *izkera*.
14. *Esker anitz* (tx) . 3 efitan (Sara, Ainh, Arang).
mil-esker. . . 5 » (Its, Arang, Ufuñ, D. Lo, Ain).

mila esker . . 2 . » (Urd, Zugaf).

15. Donostia, -ako, -ara, bat ez beste efietan. *Donostia, -iko, -ira* Itsasun. Beste efietan ez da erorkera edo *casu* guzietan ageri, baño ageri denetan *-ia* ta ez *-i*.

16. *Ur geiago, gehiago* . 5 efitan (Urd, Zug, Its, Ar, Sar).
ur gehiau . . . 1 » (Ainh).
ur geio . . . . . 1 » (Ufuñ).

17. *Zaindu* . . . . . 5 » (Urd, Zug, Its, Ain, Ar).

18. *Agindu* (g) . . Efi guzietan.

19. *Leze* . . . . Bi ez beste efietan.
leize . . . . 2 efitan (Itsasu, Arang).

20. (Argiratu, argitaratu) *argirat, argitarat*, efi guzietan.

21. *Bizitza, bizitze* bat. Geienak.
Bizi bat . . . 1 efitan (Ufuñ, D. Loitz, Ainb).
Eriotza (e) heriotze bat. Efi guzietan.
Gauza bat . . 5 efitan (Ainh, Itsas, Zugaf).
gauz bat . . . 1 » (Urdaz).

Beste efietan ez da ageri.

Eregina bat . . . . 4 efitan.
eregin bat . . . . 2 » (Urdaz, Ufuñ).
Neskatxa bat . 5 » (Ufuñ, Ainb, Sara, Itsas, Urd).
neskatx bat . . 1 » (Urd).

23. *Bilbao* . . . Efi guzietan. *Bilbau* Ainhoa-n.

24. A) *Urtarila, untarila* Efi guzietan.
urtarila . . . 2 efitan (Ufuñ, D. Lohitz).
B) *Otsaila* (otsaila). Efi guzietan *Otsaila* (D. Lohitz); *otsala* (Ufuñ).
Z) *Martxoa* (ua) . Efi guzietan.
D) *Apirila*, apila . » »
E) *Mayatza* . . . » »
F) *Erearo* . . . 2 efitan (Urd, Zugaf).
eraiero . . . 2 » (Ainh, Sara).
ereiaro . . . 1 » (Itsas).
eriaro . . . . 2 » (Arang, D. Lohitz).
Juina . . . . 1 » (Ufuñ).
G) *Uztaila, uztaila*. Efi guzietan.
H) *Agostu, abostu*. » »
I) *Buruila* . . . » »
L) *Uria* (ya). . . » »

M) *Azila, hazila* . » » *Azaroa* ere bai Zugaramurdi-n.

N) *Abendu* . . . » »

25. *Gosari* . . . 5 eŕitan.
goxari . . . 2 » (Uŕuñ, D. Lohi). Ez da euskalki ontakoa *gosari*.

26. *Gosaldu* . . . 5 »
goxaldu . . . 3 » (Ainh? Uŕuñ? D. Lohi?)

27. *Iesus*.

28. *Maria*, Mari.
Mayi . . . . 2 eŕitan. (Sara, Ainh).

30. *Ardandegi* . . 1 » (Urd). Arnotegi Lapurdin.
Xaia = bodega (itsasu, Sara).
Mindegi . . . 5 » (Urd, Zug, Sara, Uŕuñ, Ainb).

31. *Isiltasun* . . . Eŕi guzietan.

32. *Biguintasun* . . 2 eŕitan (Urd, Zug).
Zuzentasun . . 7 »

33. O.

34. A) *Bide zabala* . . 3 » (Urd, Zug, Ainh).
bide aundia . . 4 » (Ainh, D. Lohi, Sara, Arang).
eŕegebidea . . 2 » (Zug, Itsas) Eŕebidea (Itsas).
bidebeŕia . . . 1 » (Uŕuñ).

B) O.

Z) *Kantoniera, kaminerua*.

35. *Hilkor, ilkor* . 4 eŕitan (Urd, Zug, Ainh, Arang).
igarankor . . Ez da ageri. *Iraunkor* Sara-n.

36. *Nafaŕoatik* . . 3 eŕitan (Urd, Zug, Uŕuñ).
Nafaŕotik . . 2 » (Sara, Ainb).
Nafaŕetik . . 1 » (Itsas).
Nabaŕetik . . 2 » (Arang, D. Lohitz).
Nafaŕoara . . 3 »
Nafaŕorat . . 2 »
Nafaŕera . . . 1 »

37. *Nafar bat* . . 3 » (Urd, Zug, Uŕuñ).
nafartar bat . . 4 » (Sara, Itsas, Urdaz, Ainb).
nabartar . . . 2 » (D. Lohi, Arang).

39. A) *Astelehen, astelen*. Eŕi guzietan.

B) *Astearte* . . . . » » *Astarte* (D. Lohi); *asteharte* (Aran).

Z) *Asteazken* . . . » »

D) *Ortzegun* . . . » »
E) *Ortziral* . . . 4 eſitan (D. Lohitz, Uſuñ, Sara, Itsas).
Ortzilare. . . 4 » (Ainh, Arang, Urd, Zug).
F) *Larunbat*. . . Eſi guzietan.
G) *Igande* . . . » »

40. O.
41. *Tō*. . . . . 3 eſitan (Sara, Itsas, Urdaz).
nō . . . . . 5 » (Urd, Its, Sara, Ainh, D. Lob).
To . . . . . 5 » (Urd, Its, Sara, D. Lohi, Ain).
no . . . . . 3 » (Urd, Its, Sara).
42. *Asikin* . . . 1 » (Ainh?).
43. *Agur egin, salutatu* Eſi guzietan bietara.
44. *Despeitu, condzit eman, adio egin.*
45. *Gogoratu*. . . 7 eſitan. Venir a la memoria.
orhoitu . . . 1 » (Itsasu).
46. *Gurutze* . . . 6 »
kurutze . . . 2 » (Ainh, Itsasu).
47. *Grina* . . . . 7 eſitan.
48. O.
49. *Gure alde* . . Eſi guzietan. Gañera *gure fagore* (Sara, Ainh); gure faboretan, (Uſuñ).
50. *Jauna* . . . . Eſi guzietan : ez *Jaunoi.*
51. *Edaterat, edatera* » »
52. *Zaite* . . . . 7 eſitan.
zite . . . . 1 » (Itsasu).
zaitea. . . . 1 » (Zugaſ).
53. *Afrika* . . . Eſi guzietan.
54. *Iaſi* . . . . 7 eſitan.
Iazaſi . . . . 1 » (Uſuñ?)
55. *Ezta deusik. deus*. Eſi guzietan.
ezta yeus. . . 1 eſitan (Itsas).
ezta fitsik . . 2 » (Urd, Ainh).
ezta funtsik . . 1 » (Uſuñ).
56. *Lege* . . . . Eſi guzietan.
57. *Aitaxo* . . . 2 eſitan (Urd, Ainh).
aitaso. . . . 3 » (D. Lobi, Arang, Its).
aitautxi . . . 1 » (Zugaſ).
aititxi. . . . 1 » (Uſuñ).
58. *yeiki* . . . . 4 » (Urd, Zug, Sara, D. Lohi).
yaiki . . . . 2 » (Uſuñ, Itsas).

yeki . . . . 1 » (Arang).

59. *Gizonik aski* . 7 eſitan.
aski gizon . . 1 » (D. Lobi).

60. *Bereſer. beaſer, beſer* = monaguillo, bi ez beste eſietan; niño de coro (Itsasu).

61. *Goibel* (eguraldiaz) 3 eſitan (Sara, Uſuñ, D. Lohi).
beltzuri . . . . 3 » (Arang, Itsas, Ainh).
triste . . . . Eſi guzietan.

62. *Otoitz egin* . . Eſi guzietan.
otoiztu . . . Arangoitzen.

63. A) *Jinkoaren oilo, mandatari* 3 eſitan (Urd, Zugaſ, Itsas).
Pinpirina . . . . . 2 » (Uſuñ, D. Lohi).
apexa . . . . . 1 » (Sara).
papilona . . . . . 2 » (Arang, Ainh).
txitxitola . . . . . 1 » (Arang).
xinxitola . . . . . 1 » (Itsasu).
B) *Armiarma* . . . . . 4 » (Urd, Zugaſ, Sara, D. Lohi).
armiarmu . . . . . 1 » (Arang).
armiarmalo . . . . . 1 » (Ainb).
armiarmau . . . . . 1 » (Itsasu).
irmiarma . . . . . 2 » (Uſuñ, D. Lohi).
Z) *Gauiñara, enara* 3 eſitan (Urd, Zug, Ainh).
kafanera . . 1 » (Urd).
gauxorl . . . 2 » (Itsas, D. Lohitz).
gaubeha . . . 2 » (Sara).
saguzaſa. . . 1 » (Uſuñ).
D) *Igela* . . . . 3 » (Urd, Zug, Arang).
ighela. . . . 3 » (Arang, D. Lohi, Uſuñ).
ihela . . . . 3 » (Uſuñ, Sara, Ainh).
E) *Apo* . . . . Eſi guzietan.

64. *Frantzia* . . . » »
prantzesa . . 3 eſitan (Urd, Zug, Itsas).
prantsesa . . 5 »

66. *Orhoitgaſi* . . 1 » (Itsas).
oroitzapen . . 5 »
oroipen . . . 2 » (Urd, Zugaſ).

67. *Lapurdi* . . . Eſi guzietan.

68. *Lapurdiaſák* . 2 eſitan (Urd, Zugaſ).
lapurtaſak . . 6 »

Lardizabalen Testamentu zarreco ta berrico condaira

Euskaltzaindi onen Batzar ilerokoetarako papertxo bat igortzen zaio Euskaltzain bakoitzari, zein egun ta tokitan biltzekoak diren jakinarazteko. Bi urtetik ononzko dei-txarteltxo orietan azken-leŕoan itz auek irakurtzen dituzte euskaltzainak: **Bakoitzak dakaŕena.** Lengo astean gure zadorlari-orde (Vicesecretario) zintzoak, beti bezela bi ele oriek tintontzitik atera-auŕetxoan nonbait ere *bakoitz* gutxik lana ekaŕiko zutelakoan edo ilun-milunka nereganatuz «beroŕen lana ta Lacomberen Durone edo Duvoine edo dana dalakoa» uŕengo batzaŕetarako eztago besterik.

—¿Eta **bakoitzak dakaŕena?** galde egin nion nik.

—Pzzzzzz, begiak ertsirik zituela erantzunaz, bere zador ta isilkai-artera joan zitzaidan.

Egun batzuk auŕerago goiz ta aŕats, orduai labur neritzaiela, Lardizabal-en lan luze eder ori leŕoz leŕo irakurtzen ari nintzan. Orduan ere bateko adizkiren bat, besteko aleman-tankerazko zerbait, naiz Bizkaiusaineko itz bat edo beste, naiz Benapaŕoako zertxoren bat, *Testamentu* oŕetatik eskuratu nairik asita berealatsu, lantxo auxe egitea bururatu ta tin-tin mai-gaineko txilintxoari ots eragin nion. *Que venga don...* esan nion mutikoari, pzzzzzdunaren izena aipatuz.

—¿Zer da?

—Batzaŕetarako lanen artean sartuizu onako au: *Lardizabalen Testamentu zarreco ta berrico condaira.*

Beste zerbait, gurekin egunoro zur ta zoli lanean ari denarengandik ere, batzargai orien artean sartu

zaio ta gizonak —nik uste enuena— aspaldion iḷoroko dei-txartel orietan ain gozaro irakurtzen genduen **Bakoitzak dakaŕena** zeritzaion beita edo amuzki ori (amuzki nere eŕialdeko aŕantzaleak aŕainak artzeko erakargaitxoak du izena) oraingo onetan gure zadorlari-ordeak bere maipean utzi digu. Lagunak: barka zaiozute ¡otoi! eta gainera jakinarazi auŕerantzean bakoitzak batzaŕ guzietarako beti zerbait ekaŕiko duela ta maipean zigaŕo-ondakinak baino besterik ezertxo ere eztezala utzi.

Badakizute, gizonak, lantxo onen asipenaren beŕi. Nere buruan sortu ta eskuetan jaio-arteko une ta aldi ori aste ta erdikoa baizik ezta. Etzaitezte, bada, ez zoŕotzegi ez zoŕosko lantxo onentzat izan.

Lardizabal bere idazkietan, eta idazki aietako itzetan, alemanak beren itzetan bezelaxe, oso-zalea zan. Bazekian erderazko «cosa» euskeraz eztala *gauz*, latinezko *causa*-ren alaba *gauza* baizik; eta azken *a* ori galtzeak min ematen zion. Ona bere esakera batzuk: *Juduen lege eta* **gauzaen** *gañean* (559-30), *onetan eta beste zenbat* **gauzaetan** (222-21) *kaŕika eta plazaetan* (289-30)... eta abar. Berdin egiten zuen azken *a*, zena zelakoa, osorik agertzeko. **Aitamaen** *bide berberak artu zituen* dio 237-gaŕen oŕialdean eta leŕoan berean (boskaŕenean) *ayen* **gaiztakeriaetan** *bereala erori zan*. Saul bere ibiḷera aietan nolakoa zen adierazteko itz auek dakarzki: *bere esanegin eta* **ibiḷeraetan** *ez-jakin eta moldakaitz bat zan* (172-33). Lardizabalek bazekien (bere egunetako euskal-gramatikorik jakintsuena ¿zelarik nola jakin ez?) bazekien askorentzako mugitza (artikulo plural) *ak* degula euskeraz, aquellos aiek dela: eta etzion azken

k^ori (berac cerabiltzen zuen) ezergatik kendu nai izaten. *Betiko ausardi eta queñacquin* (Keñakkin) (181-34), *su-ondoan zeuden eta Pedro ere bai, ayecquin (ayek kin) batean berotzen* (486-8), *Pedrok bere ukamena negar-malkorik samiñenacquin garbitzen zuen* (486-34), *biotzik onenacquin* (563-13)... e. a.

Bere urteide edozeiñek bezain ongi zekien Lardizabalek eñak *izketa* esaten duela erderazko «lenguage» adierazteko: bainan ele eratoñi (derivado) oñen oiña *itz* delako, berak *itzketa* idatzi oi zuen: *Aquioren* **itzqueta** *au* (113-15). Bazekien eñak erderazko «malvado» *gaizkile* esaten duela, bainan itz onen jatoña *gaitz* dela zezaguelako, *gaitzguilleren bat zala* (586-10) idatzi zigun berak.

Bazekien erderazko «el perder» eñaren ezpaiñetan *galtzea* dela ta «uniéndose» *batzen*. Berak ordea itz onen sustraia ezagutzen zuelako, osorik jartzen zuen bere paperetan: *Herodes-i ... txit konbeni zitzaiola kristau guziak* **galdutzea** (544-22), *oyei* **batutzen** *bazayezte* (593-7).

Lan eder onek 594 oñalde ditu. Berak eskuz egin zuena berbera (oso osorik ezañen) nere eskuetara etoñi zait. Nere betazalak alkañengandik berezi ezin ditezken egunetik, nere iltamu-ondoan, Euskaltzaindiarena izango den liburu onetan bi lan dakuskigu. Or-emenka itz bat mañaz erdi-estali ta bere gaiñean zuzendurik (geienetan okerturik) agertzen da. Biñdazketa auek Lardizabalek bere eskuz eginak direla argi-argi ageri da. ¿Noiz eginak dira ordea? Nere ustez gramatica-arazoan sartuta gero, euskera ikertzen asi ezkerokoa dirudi birlan onek. Lenengo idazketa eñarengandikoa da, bigañenean itz ta izkera-aztertzaile baten lana dakust, edo beintzat dakustalakoa daukat. Ona emen gertakari batzuk. Lenengo idaztaldian, eñak bezela,

zion Lardizabalek (1): *irten nai izan etzueneko* (144-18), *buru izan bear zuela-ta* (159-8), *izan nai bazuten* (185-5), *biar il bear dezu* (198-12). Bigarren idaztaldian onelaxe aldatu zituen esakera eder oriek (2): *irten nai izan etzaneko* (140-18), *buru izan bear zala-ta* (150-36), *izan nai baziran* (174-27), *biar il bearko zera* (158-28). *Nai izan*-ek eta *bear izan*-ek beti eskatzen dute laguntzaile bidalkoia (auxiliar transitivo) beren kidetzat *irten, izan, il*... naiz beste edozein aditz euskoi (verbo intransitivo) dutenean, baita kide au izen bat denean ere. Ikusi onetarako *Morfología Vasca* 144-33.

Onezaz gainera eriarengandik artuta bere lan ederrean itz auek ezarri zituen (2) *izan ezpalitz bezala* (183-23), *ematen ezpazien ere* (170-30), *Erregek esan zien* (201-18) eta gramaticagiletu zitzaigunean ikututxo bat egin zien onelako esakera guziai; eta Tolosan bera il ta 30 urte geroago elazturiko lanean onela irakurtzen ditugu: *izan ezbalitz bezala* (173-15) *ematen ezbazien ere* (162-16). *Erregeak* (erderaz el Rey da-ta) *esan zien* (188-10).

Len esan dizutet Lardizabal, Alemanak bezelaxe; oso-zalea genduela. Greziarren *episkopos* Alemaniarrak *Bischof* diote, del Obispo *Bischofs*. Itz au beste lau eratorri auen oiña da : Sede episcopal *Bischofsstab*, hábito episcopal *Bischofstracht*, dignidad episcopal *Bischofswürde;* eta *Bischofs* orek eztu ez *f* ezta azken *s* ori ere inoiz galtzen, gaiñerako itzak *z* asieran idukiarren. *Dakus* «lo ve» aleman-itza balitz, los ve *dakusz* izango litzake; euskeraz berriz *dakusaz*. «Usted lo ve» *dakuszu* esango lukete aiek, guk *dakutsu*.

(1) Orialde ta lerro auek, lenengo adibideetako auek, eskuzko liburuaren orialde-lerroak dira.

(2) Beste orialde-lerroak Tolosako elaztaldikoak ditugu.

II. Lardizabalen liburu eder onetan Bizkai-kutsua noiztanka ageri da. Eun aldiz irakuŕi oi dugu *gitxi gutxi* ren ordez; *igarle* esan-beaŕean *bera izan zan Igarla edo Profeta* dio 109 gaŕen oŕialdean, 31-gaŕen leŕoan; *jake*-ren tokian *jaka edo amīla bost aŕoba eta erdi kobrerekin* (181-15). Saul eŕegeri bein **frakak** *askatu beaŕak eman* ziola dio (191-27). *Erori*-ren ordez *jauzi* amar aldiz gutxienez agertzen da. (Ikusi 344-32). Bizkaiko zertxo auetatik bat edo beste Zaldibian berean ikasi zitezkean; baiñan nere ustez Frai Bartolomeren liburuak irakuŕian erdalkeri batzuen gainera, itz ta esakera geien oriek ikasi ta beretu izango ditu. Frai Bartolomek erderazko «sobre todo, principalmente»-ren ordez maiz esaten du *endemas* eta ez gutxitan *endamas*. Lardizabalek ere bi aldiz dakarzki bata ta betea. *Txit ondo nai ziotenak ere bazituen*, **endemas** *Israelko emakumeen artean* (497--28). *Ez bakaŕik Juduai... baita gentīlai ere*, **endamas** *Juduakin ezer auŕeratu ezin zala zekustenean* (542-27). Frai Bartolomeren gandikoa zuela uste dut gaiñera *ikaskizunak*-en ordez *ikasikizunak* esatea. Aleman-antzera osoturiko itz auxe artu zuen Fraile ark bere lan bikoitz bati izena emateko: *Jaungoikuaren amar aguindubeetako... icasiquizunac*. Lardizabalek (556-26) onelaxe erabili zuen itz osotu ori: *bear ziran ikasikizunak San Pablo eta Silasgandik artuta*. Leŕo batzuk geroago erdiko *i* ori gabe, eŕiaren erara, *ikusi* sustraitzat duen itza onelaxe dakar: *esan eta egin* **ikuskizunen** *bat*... (557-1).

Bizkaierazkoak dira gaiñera bere itz auek ere: *aratu* registrar (590-22), *norbaitzuk* (509-30), *danak* «todos» *denak* -en ordez: *danak iritsi bear zuten* (499-1). Beste nonbait azalduta dago erderazko «todos» en ordez *danak* edo *denak* eztala esan bear.

Ona emen zeinbat eratara eŕiarengandik entzuten dugun.

TODOS

1.º Todos estamos aquí	*geranok emen gera.*
2.º Todos caeréis	*zeratenok eroriko zerate.*
3.º Todos morirán	*diranak* (1) *ilko dira.*
4.º Todos estábamos allí	*giñanok an giñan.*
5.º Todos caisteis al agua	*ziñatenok uretara erori ziñaten.*
6.º Todos murieron	*ziranak il ziran.*

Eŕiak auezaz gaiñera beste iru esaten ditu: len aipaturiko *denak* itsusi ori, *guziak* edo *guztiak* eta *oro* (au gutxi entzuten da giputzez). Cardaberaz-en *Aita San Ignacioren ejercicioac* deritzaion liburuan dakusku geienik goian esandako *diranak* erderazko «todos» adierazteko. *Mandatu oni diranak obedituko diote* (258-5); *humildadez diranak kendu* (333-4); *Utzi, bada, diranak* dejad pues todos (176-17) *indazu argia ondo ikusteko ta zure biotzeko sua, diranak or eŕe ta akabatzeko* (337-8). Frai Bartolomek ere bizkayeraz badakar noizean bein: *juan zirian dirianak luxuriaren auŕera (Icas.* II 20-14). Zeatzago izango zan onela esatea: *ziranak loikeriaren auŕera joan ziran.*

III. Benapaŕoatiko esakera gutxi batzuk ere badakuskigu *kondaira* onetan. *Baratza zaia* **zalakoak** el tenido por hortelano (508-18), *betetzer zanean* cuando estaba a punto de llenarse (501-8), *iltzer uzten zutela* dejándole a punto de morir (567-2) (2). Itzik gutxi artu zituen Lardizabalek euskalki artatik; eta aŕitzekoa da geiago ez artu izatea. Bere liburu au To-

(1) *Diranok* ere esan diteke.

(2) Cardaberazek ere noizbait badakar *iltzer* au: *Utzi, bada; diranak* dejad pues todos (176-17) *ilzer dagoen baten animan (Aita San Ignacio...* 41-151).

losan argitaratua izan zan baino eun ta amar urte lenago Bayonan *Testamen çaharreco eta berrico historioa* deritzaionak argia ikusi zuen. Bassussarry-ko eŕetore Larreguyk frantzesetik itzuli zuen. Lardizabalek begien aurean bide zeukan *historio* au bere *kondaira* egiten ari zan artean. Berak bere itzaurean gutun (liburu) au aipatu zuen «Franciako Apaiz Laŕegi-k ere, orain irurogeita amar urteko (sic) diralarik, argitaratu zuen *Testamentu zaŕeko eta beŕiko* (sic) *Historia*-ren izenarekin liburu luzeago bat.

Ona emen aurez aur batonen ta besteoren kapitulu batzuk.

Larreguirenak	Lardizabalenak
1. *Munduaren kreazionea.*	1. *Munduaren egitea.*
2. *Gizona ezaŕia da luŕeko Parabisuan.*	2. *Adan lenengo gizona luŕeko Paradisuan ipiñia.*
3. *Adamen erorikoa.*	3. *Adan-en erorikoa* (1).
4. *Adamen punimendua.*	4. *Adan-en kastigua.*
5. *Abelen heriotzea.*	5. *Abel-en eriotza.*

Dakuskunez Zaldibiko eŕetoreak Basusaŕikoaren lana antu zuen berearen ointzat; bainan aren izkuntza ta onena eztira berdinak. Frantzes-kutsu aundia du arenak, onena askozaz txukuntxoago, garbixeago da. Len bezela aurkez aurke bataren ta beste onen adibideak jaŕi ditzagun.

(1) Len esan dugunez, Bizkaierazko *jauzi* dakar gelenean Lardizabalek *erori*-ren ordez. *Eroriko* onek Larreguy-rengandikoa dirudi beraz.

Adamen erorikoa (p. 18)

Adame eta Eva etziren hain laster abiatu gozatzen parabisuko atsegin eta nahikarez non etsaiak nahi izan baitzaroen bi kreatura hauien leyhaltasunari: bekhaiztu zitzaion heien innozentziari.

Adanen erorikoa (p. 7)

Adan eta Eva Paradisuko naikera eta atsegiñak gozatzen asi ziran bezain laster, etsaiak kriatura bi aien leialtasunari ekin zion; ayen eŕueza edo inozenziari eraso zion.

¿Lardizabalek bere auŕetikoaren *bekhachtu* (bekaiztu) ongi ulertu otezuen? «Tuvo envidia» «acometer» bezela, *eraso* esanez, itzuli zuen. «Inocencia» euskeraz adierazteko, Larramendiren *gaitzicbaguea* ta *bilarteza* alde bat utziz, Bizkaierazko *eŕueza*, Añibaŕok lentxeago erabilia, egoki artu zuen. Kapitulu askotan bakoitza bere aldetik dabiltza *historio* ta *kondairadunok*.

IV. Erderakada gutxi dakar Lardizabalek. ¿Zein liburuk eztitu geiago? Ona emen polit batzuk: *Patua* «el destino». *Guk zeramakagun patua txit bidezkoa... dek* (500-30). Bizkaian *patua* «el destino» eztut bein ere entzun. *Jaungoikoak* **adu** *oneko ta suerte oneko egin zaizala* esaten zigun etxean amak. Gipuzkoan ere *alabeaŕa* entzuna dut, ez ordea latinezko *Patum*-diko *patu* ori. *Patuak* esaten da Bizkaian, baiñan beste zentzun batean. Gutxik bezalako gaitasuna duenarengatik Lekeition esaten genduen: *-txo, patuak d̄aukazak oŕek* tú, ese tiene pactos (con el diablo oteda?). Esku ona adierazteko itxasuritxo artan ta beste alde batzuetan ere bada, edo beintzat bazan, beste itz bat: *autsak*. Tours-ko iztegian itz onen bigaŕen zentzuntzat «habilidad» ageri da: *autsak daukaz*, itzez itz «tiene polvos» (¿de la Madre Celestina?). Lardizabalek bein edo bein baizik eztakar Larramen-

dik ain sarí erabili oi zuen *zeiña* «el cual». *Natanael*, **zeña** *batzuk diote Bartolome zala* (515-1). Beste bat ere—*zeren*—irakur diteke eta maiztxo. Cardaberaz-en lanetan bezain maiz ez ordea. *Barkatu zaiezu, ene Aita*, **zeren** *ezdakiten zer egiten dute*n (499-1). Erdaldunak «le quiere mucho» askotan erabiltzen dute «le ama mucho»-ren ordez. Lardizabalek ere bein edo bestetxotan *maite izan*-en ordez *nai izan* esaten du. *Pedrok bazekien Jesusek Apostolu maite oni zein asko nai zion* (516-32).

Aspaldion entzun eztudan *paxa*, erderatiko «faja» 504-15-an irakur diteke: *pasatu edo paxaz ondo lotu zuten*.

V. Izperi (neologismo)-zalêgia etzan, bere ta gure zorirako. Batzuk Larramendiren iztegitikoak ditu: *etxadi* barrio (546-42), *edakai* cáliz (461-11)... ta besteren batzuk. Berak eratutakoak ere baditugu. **Euskalzale**-k orain 30 urte ta gure egun auetan **Zeruko Argiak** grabado edo ilustración-tzat darabilten *edergari*, Lardizabalek «alhaja» adierazteko dakar (118-25). Aparición *agerkera* (513-5) ta *agerketa* (517-11, 517-29), comprobar *egiztatu* (572-21) ta besteren bat irakur ditzakegu.

VI. Orain eriak irabiatzaka edo conjugatu gabe dauzkan aditz batzuk guk *ekari* ta *yakin* bezain eraz ta berera ta ugari irabiatu oi zituen Lardizabalek aditz auek: *ikusi*, *yaraiki*, *iraun* ta *etzin* edo *etzan*. Bein edo beintxotan baizik irabiatzen eztituenak beste auek dira: *entzun*, *irakin*, *erasan*, *yardun*, *izeki* ta *itxeki*. **Morfologia**-ren geigarian Giputz-aditza erakusteko *appendix* artan, zearo erakutsiak izango dira adizki guzti auek. Orain adibide bat edo beste ager ditzagun:

Ikusi. *Dakus* lo ve (499-11), *dakuski* los ve (499-12), *dakuskit* los veo (32-13), *dakuskun* veámoslo (399-30).

Jarraiki. *Berraikit* sígame él (441-30), *niri darraikit* me sigue a mí (404-28) (1), *zerraikiola* siguiéndole (43-6).

Iraun. *Badirau* (17-33), *zirauan* (27-7).

Etzan edo **etzin**. *Natza* yazgo (455-22), *lo zetzan* (16-1).

Entzun. *Dantzugula* (220-23), *dantzutela* (219-33).

Irakin. *Bazirakion* (189-2).

Yardun. Gure egunotan Zaldibian berean ere eztarabilte aditz onen adizkirik. *Yardun* irabiatzaka (infinitivoan) Gipuzkoako uri ta urixko auetan ezaguna da: Alkizan, Beizaman, Bidanian, Getarian, Itziarren, Oikinan, Orion ta Zarautzen gutxienez. Onen adizkiak Giputz idazle geienak darabilzkite. Lardizabalek: *niarduen* (482-37), *ziardun* (140-32), *ziarduten* (144-20), *ziardutela* (57-23). Asteasuko Aguirrek: *obra onetan diardunari* (*Conf.* 137 - 18), *onela diardue jokoan* (*Conf.* 155-3). Ubillosek: *lan onetan diardugula* (174-7), *bekaturako tentatzen diarduenak* (9-2).

Izeki arder. Lardizabalen adizkiak: *beti zizekan sua* (327-20), *alde guztietatik bazizekan* (591-27), *gure biotzai etzizekaten* (512-33).

Itxeki adherirse. *Oni zitxokan* (233-18), *bere Erreinaldiari zitxeokan gauzak aditzen* (345-30), *aldare-ertzari zitxekala* (228-5). Aguirrek ere badakar adibide bat: *gorputz biziari ditxeozkanak* (*Conf.* 54-19).

Lapurdi-aldekoren batengandik noski artuta *eran* ere irabiatu zuen Lardizabalek, bein bederik. *Zerbait deragun Joben... gainean* (278-31). Itz onen ordez *erasan* erabili oi zuen Zaldibiarak: *Erasan*-ek beste

(1) Lardizabalek eta Cardaberazek Bizkaian ta Lapurdin bezela *niri* esaten zuten. *Morfologian* esan zanez, *bere*-ren kutsua dute *nere*-k eta *ere*-k; eta *nere*-tik sortua da *neri* gaixo ori.

zortzi zentzun ditu, Iztegian ikus dezakegunez Erderazko «decir» bezela liburu onetantxe, bestetan eztut bein ere irakuŕi. Eŕiari entzun bai, Bizkai-aldean beintzat. *Erasan eragin deutsat* «le he hecho decir» entzun nuen bein Aŕasaten. Itzez itz «hacer decir» da erasan ori. *Edozein gauza zuen kontra darasaten* para que digan... (413-7), *zerasaten* decían (437-9), *eskuak ezaŕi ziozkaten, zerasatela* (566-30) le pusieron las manos, diciéndole.

VII. Aŕitzekoa da Goieŕiaŕa zelarik, Lardizabalek *ark esan zuen* ta *ayek esan zuten* erabiltzea. Goieŕin ta Beteŕi geien-geienean *ark esan zuan (zuun* ta *zoon* ere bai) ta *ayek esan zuen* entzun oi da. *Nago, ago* ta *dago*-ri afijos conjuntivos deritzaien *n, nean, la...* ezartzean, *a* Goieŕiaŕak, Napaŕ-usaindun Beteŕiaŕak *e* arteratzen dute: *nagoala* ayek, auek *nagoela*. *O* onek *a* eskatzen duenez, *u*-k eskabide berdina du. *O* ta *u*, onetarako, aditz-muñarenak (del núcleo verbal) izan bear dute. *Edan degu*-tik eztu inorz iñoiz *edan deguala* ez *edan deguela* atera, *edan degula* baizik. Berdin *datorkio*-tik eztu inork *datorkioala* ez *datorkioela* azaldatzen, beti *datorkiola*. Bada muñaren *o*-k eta *u-k* eskakizun berdina dute: *nagoala, nagoanean* ta esan *zuan, zuanean* Goieŕin; *nagoela, nagoenean* ta *esan zuen, zuenean* Napaŕoaldean. Lardizabal bere Gramatican *e* zalea zan, naiz *o* naiz *u* -dun muñ oyekin. Bere *kondairan* ordea *menderaturik zego an* dio (278-7) ta gero beti *Jainkoak nai etzuen-ezkero* (115-2), *Balaan..· ek bedeinkatu zituen* (115-9)... eta abar. Cardaberaz-ek *go* aditz-muñ oŕi batzuetan *a*, beste batzuetan *e*, «conjuntivos» oiekin gaiñeratzen zien: *nola euskera... bizirik egon dan* ta *dagoen (Eusqueraren...* 10-1); *iratzaŕirik nagoen* esté yo despertado por otro, itzez itz *(Aita San Ignacio...*

345-13). Esté yo despierto *itzarik nagoen* da egiazko euskeraz. Despertarse *itzari*, despertar a otro *iratzari*. Lardizabalek, bestera, noizbait jatsi «bajarse» artu zuen «bajar a otro» adierazteko, eratsi-ren ordez: *Jesus ila gurutzetik jatsitzeko prestamenak* (502-31), *saski batean leiotik lurera gauez jatsi zuten* (537-36). Bide batez irakurleak bekus Lardizabalek emen ere bizkaierako *jatsi* giputzezko *jetxi*-ren tokian erabili oi zuela.

VIII. Gatozen orain gai erazago batera: itz-joskera edo «construcción» deritzaionera. Egoki josi oi zituen Lardizabalek geienean bere itzak. Noizbait, ordea, ark ere uts batzuk egiten zituen, batez ere bere esakerak ezezkoak (negativos) ziranean. Morfologiako txoko baten, 665-garen orialdean, 5-garen leroan asita, itz auek irakurtzen ditugu: cuando esa *n* es elemento conjuntivo «para que», tiene más fuerza que la negación para la movilidad de la frase y decimos *aurératu enadin* (pocos pueblos dicen *eznadin)* para que yo no me adelante». Auxe gertatzen zaigu beste conjuntivotxo batzukin ere. *Eztugu jango* no comeremos, *ez* aurétik dala, ta *jango eztugulakoan* creyendo que no comeremos; *eztut ikusi* ta *ikusi eztudanean*... eta abar. Lardizabalek onelako esakerak conjuntivo ori kenduta bezala uzten zituen ta *eztugu jango*-ren ordez *jango eztugu*, *eztut ikusi* esan-bearean *ikusi eztut*-en antzeko esakera asko dauzka. Ona batzuk: *Jauna, bada gauza loirik (loi* Bizkaian bezela) *egundaño jan ez det* (540-32). *Atseden etzuten apostoluak andik bialdu arteraño* (551-8). *Korinton bezain egonaldi luzerik (egotaldi* euskera txukunagoa da) *beste eritan egin etzuen* (558-4)

Au gora-bêra geienean Zaldibiko euskalari bikaiña esku oneko itz jostun agertzen zaigu. Begira, gizo-

nak, edo beintzat entzun esakera luzexko au zeiu ederki korapilotua den: *Zazpigarena zure Jaun Jainkoaren eguna da. Egun onetan ez dezute ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak, ez zure morroiak, ez zure neskameak, ez zure abereak eta zure etxean bizi dan arotzak lanik egingo* (88-25).

Baditeke Hebreotarak gure izen mugatzaka (indefinidos) bezelakorik ez izatea. Esakera ori, Hebreotik artua izan bearean, euskaldun jator baten buruan sortua balitz, onelaxe ots egingo edoluke: *egun onetan eztezute ez zuk, ez zure semek, ez zure alabak, ez zure morroik, ez zure neskamek, en zure aberek, ezta zuenean bizi den arotzek ere lanik egingo.*

Amaitzeko. Lan au egiten niarduela, ordurik etzitzaidan igarotzen gure zadorlari-ordeak (vicesecretarioak) egin digun, nik asieran aipaturiko ostenketatxoa oroitu gabe; eta bera zuritzearen arduraz aratu ta aztertu ta ikertu ditut, *ekarri* aditzaren adizki orren bila, Lardizabalen bost eun ta laurogei ta amalau orialdeak. Nere paperetan or ditut *Pakea dakardala* (429-20), *iru saski irin zekarzkiela* (51-13), *ekardazu hura* (39-12), *bi antxumeak ekarzkidazu* (39-26)... ta beste adizki polit asko; bainan politen politen politena *Bakoitzak dakarena* eztut Lardizabalen erraietatik atera al izan. Onegatik ere, zuek eskatzen baldin badiozute, zuen eresi edo gurari ta eskari ori eztio gure lankideak uko egingo; eta batzar orotako erizkizunpean, orainarte bezela, burua txutik agertuko dute itz ozen, zoli, goxo, txanbelintxo oriek. Alabiz.

Bilbon 29-XII-1926.

AZKUE.

ARKIBIDEA

Orialdea

LOS NÚCLEOS DE LOS AUXILIARES, Francisco de Corta, S. I. 5
AÑASATE'KO EUSKALEGUNEAN EGUSKITZA EUSKALTZAÑAK EGINDAKO ITZALDIA 24
NAPAÑOAK ERIZKIZUNDIARI ERANTZUN DIONA . . 35
ZUHUR HITZ ETA EÑANKIZUN ADITUZKOAK, Landeñetxe 59
BATASUNERA - BIDEAN, R. M. de Azkue. 63
BATASUNERA - BIDEAN, Severo de Altube 67
ESAERA - ZAÑAK, Intza'r Damaso An. O. M. Cap. . 87
NAPAÑOAK ERIZKIZUNDIARI ERANTZUN DIONA . . 110
MENDIBURUREN ADIZKIAK ETA IDAZTANKERA, Resurrección María de Azkue. 124
IZPEÑIAK ERATZEKO BURUBIDE BAT EDO BESTE, Resurrección María de Azkue 189
CUESTIONES DE SEMÁNTICA, R. M. de Azkue . . 201
EL ARTÍCULO Y LA EPÉNTESIS EN LA TOPONIMIA, Resurrección María de Azkue 212
MANUSCRITOS VASCOS EN INGLATERRA, Resurrección María de Azkue, ... 218
ESAERA-ZAÑAK, Intza'r Damaso. An. O. M. Cap. . . 228
ERIZKIZUNDIA NAPAÑOA BAÑENEN 237
ESAERA - ZAÑAK, Intza'r Damaso An. O. M. Cap. . 259
NEOLOGISMOS FORMADOS A IMITACIÓN DE OTRAS LENGUAS, R. M. de Azkue. 281
LA EPÉNTESIS EN LA TOPONIMIA, R. M. de Azkue . 307
ZUHUR HITZ ETA EÑANKIZUN ADITUZKOAK, Landeñetxe 311
ERIZKIZUNDIA LAPURDIN. 319
LARDIZABALEN TESTAMENTU ZARRECO TA BERRICO CONDAIRA, R. M. de Azkue 337